

# DROGA: PARADISU ALA IFERNU?

Aho biko ezpata da droga.

Drogari gustoa hartu orduko, ezin gehiago utzi aurkitzen zara. Bizpahiru aldiz heroina hartzea aski omen da, haren ohitura izan dezarun. Droga bigarren naturala zera da: asko-erentzat zigarrak eta alkohola den bezalaxe. Fenomenu ezaguna da, eta konparaketak balio du, baina baldintza batekin; itxuraz fenomeno berdintsua izanik ere, drogarena (dela atseginean, dela sufrimentuan) askoz ere biziagoa, sakonagoa bortitzagoa dela konturatuz.

Droga ohitura bilakatu delarik, apostu baten bezala galdre genezake zein aterako ote den irabazle: atsegina ala sufrimentua.

## PARADISU BILA

Drogatzearen arrazola galdetean, holatsu erantzungo dize: "Ona delako. Eta galmontzeko guztiaz nazkatuturik gaudelako".

Ona delako. Atsegina, drogaren bilaketaren munean dago. Usu, horixe da drogari eskatzen zaiona. Seksu-misterioa ezagutu da, terrene jorratua da orain, hor ez dago gehiago abenturarik. Sekusnak bere erakar-indarra galdutik duen, drogara jotzen da orain. Zertarako? Ni hori argitarazi dezaidan, nere barneko aberastasun izkurtu ezagutzea eman dezaizkidan. Edith Milner-ek dionez, ia drogazae guztiek seksu-atsegina ezagutu izan dute; eta, orain, "flash" hau askoz-az ere gogobeteagoa bilatzen dute.

Freud jaunaren iritzien arabera zenbait azterketa eta saiakerak eginak dira, hain zuzen atsegin hau nola definitu litekeen ikusi nahiz. Hitzegiak primerako garrantzia du puntu honetan.

Badagiku droga-mota asko da-goela. Bideko da, horregatik, drogen ondorioak oso desberdinak izatea. Oso bestelakoak dira marijuanaren eta morfina-erakoteko. Bistan da. Baina drogazalea, jeneralean, ez da droga-klase batekin konformatzen. Denetik hartzen eta sartzen du. Horregatik, ondorioei buruz ere jeneralean aritu beharra dago. Efecto horien artean, hauek bila genitzake: barne euforia, ikus-ameretsaldia hiralaldiak, zain-bizitasuna, kolore-sinfonia, denbora eta lekua kontu-galtzea, nagitasun goxoa, morkorrera, indar-mugida.

## "IFERNUA DA!"

Paradisua bilatzen eta ifernua bilakatzen! Drogaren atseginak mugak bertan ditu Drogazaleak ongi ezagutzen du gogotasun honen laburra eta "drogarik-ezaren" sufritu-beharrak. Atseginarekin ondoren "jeistea" (bere hitzegian) ditor. Jeistea, alegia, drogaren falta, ale-

gia, sufrimentu psikiko eta fisikoa, alegia, irauin ezina.

Drogazalearen sufrimentua, doglea da: droga faltako zaiton beldurra, eta gero drogarik-eza bera.

Drogatzen hasiz gero, jarraitu beharra dago. Behin ohituz gero eguneroko askotan, sarri. "Le Monde" eguneroko ezagunak testigu bat ezagutari digu: Marsellako emakume bat. Emakume hau berrogei eta hiru urte direla hasi zen drogatzeko. Harrezkero, berrogei eta hiru urtez, hots, 16.000 egunez, bi orduz behin drogatzeko da. Emakume honek periodistari mezu bat eman nahi izan dio: "Esatezu kandedatote, drogagaiti. Inpernu da!".

## ETA HALERE JARRAITZERA BEHARTUAK

Atseginatik izan ala beharregatik. beti eta beti drogaz gorpuztatzea ez da broma. Drogatzea garesti da. Oso garesti izazkera. Nundik lortu dirua? Beste bide asko probatu ondoren, toxikomano gehienak droga-saltzaile bihurtzen dira. Droga salduz, segurtatua dute droga eta dirua: bi txori tiro baten. Konprenitzen da, honela, drogazale gehienak propagandistak izatea. Atseginatik ote? Hona Marsellako emakumeak diena: "Atsegin apurrik ere ez! Amañtik da hori! Heriotza kondena-aren arriskupean... Eta halere jarraitzea behartuak".

Heriotza kondena-aren arrisku-pean? Frantziako Barneko Ministroak, Marcellin-ek, heriotza eskatu nahi luke droga-saltzaileentzat. Eta harek bezala beste batzuek. Damokles-en ezpata den polizia gainean dutela ere, ifernu hortatik libratzearen, droga inguruan ibili beharrean aurkitzen dira drogazaleak. Hara bizitzaren paradoxa: askatasunaren bila joan eta esklabu erori. Ohitura izena duen jaun kupidagabearen esklabu.

Baina ez al dago gate hauek hausterik? Senda al liteke?

## DROGATU-A GAIXO ALA GAIZKILE?

Nola ikusi behar dugu drogazalea: gaizkile bezala?, eri, gaixo bezala?

Ala ez eri eta ez gaiztagin? Mundu berri baten bilatzaile ez ote da drogazalea? Zibilizazio problemaren aurrean gaudela aitortzen badugu...

Drogazalea, baldin gaixo bat bada, sendategia da bere etxea. Midikuari dagokio haren sendaketa.

Drogazalea, baldin gaizkile bada, gartzela da dagokion lekua. Poliziari dagokio hura zuzentzea.

Baina inoiz esan dugu droga ez dela baitipait midikuaren problema, eta gutiago poliziarena.

Halere ezin uka bai midikuak eta bai poliziak badutela zer egin droga arazo honetan.

Gaurkoz, soluziobideak presondegiaren eta psikiatrikoaren artean daude. Poliziaren eskutan ez baino midikuarenetan jartzera da gaurko eboluzioa. Hasieran, drogazale baten aurrean, poliziari hotsegiten zitzaion. Gaur midikuari, sendagileari. Fausu handi bat eman da. Nazio askotan, legeak ere onartu du kontzientzia-aurrerapen hau Frantziara, esate baterako.

## SENDATEGI BERRIEN BEHARRA

Uraris handi bat eman da beraz, drogazalea gaizkile bezala ez baino gaixo bezala kontsideratuz.

Beste pauso bat ere eman beharra dago, guzian onerako. Orain arte, lekuri gehienetan, drogazaleen sendaketa erotegietan egin izan da. Erotegietan!, jar gaitzen pentsatzen. Bere krisia, kinka larri hori, igaro eta gairitu ondoren, zer deabru behar zuten egin drogazalearen eron eta burutik eginda dau-denen artean?

Oraindik ere, eku askotan, sendaketa-modu honetan jarraitu arren, argi eta garbi ikusten da aldatu beharra. Lehenbailehen aldatu beharra. Lehenbailehen aldatu beharra. Alde batek, drogazaleak ez dutelako hor egon nahi; eta bestetik, midiku askok ere "droga"-rik gainontzeko gaixoen artean zentrik ez dutelako nahi. Mundu guztia kezaketen da.

Baina sendategi bereziak sortu behar baldin badira, drogazalea bera "gaixo berezia" delako da. Piskanaka-piskanaka ari dira sendategiok ere eraikitzen. Exenplu bezala, Parisetako ikus genezake, Marmottan, alegia. Zabalik da egun eta gau; droga arazoak gurasoen galderei beti erantzuten die; sendaketa, talde-psikoterapiak baliatzen dira.

## SENDAKETAK URRI

Sendaketak benetan eskas dira. Mila arrazoiengatik. Hiru arrazoi sortantean agian bil genitzake denak:

—Nahi ez duen gaixoa sendatzeko ez dago. Eta drogazaleak askotan ez du sendatu nahi.

—Sendategietan denbora gutxiegia edukitu ohi dira gaixoak. Oraindik ahalgegi baldintzen dira drogazaleak kalera.



Heroinazaleak

—Eta batez ere, midiku batek zionez, drogaren ezagutapenean oso atzeratuturik dagoelako midizina.

Zenbat sendatzen da? Pozak baino frakasoak ugariago direla esan behar. Ehuneko 92-tik 95-era doaz frakaso horiek.

Drogazaleak berak, dagoen egoeratik libratzeko borondateak, asko esan nahi duela esan dugu. Eta hala da. Marmottan-eko adibidea ikustea aski da hortaz jabetzeko. Marmottan-en bada, 334 kasu aztertu direlarik:

—Drogatuak berak sendatzea eskatu badu, 25 %-ek lortu dute.

—Poliziak edo juezak bidali badu, 5-8 % sendatu dira.

—Gurasoek ekarri dutelarik, 0,1 %-ek bakarrik erreusitu du.

## DROGAZALEAREN GEROA

Geroari begira, drogazaleak ezin du pozik bere bihotzean senditu. Zergatik?

Espereintzia bat du drogazaleak: gizarteak, soziedadek, "bartzteru" egin du, zokoratu, zapaldu egin ez duenean.

Beldur bat du drogazaleak: soziedade horrek berak "irabazi"- "re, kuperatu", egin nahi lukeela, berriaz ere bere jokua onartzera behartu, gizarte horren "zentzu ona-

ren" aidea dantzatzera obligatu, istiman sartu.

Eta drogazalearen beldur honi esperieintziak arrazoiak ematen diola nork uka lezake?

Hori hola baldin bada, zergatik drogatzeari utzi?, zertako sendatu?

Drogazalearen geroa erabakitzeak, drogaren arazoa soluzionaturik dagoela esan nahi luke. Drogazale damutuaren geroari buruz egiten diren proposamendu askok drogazaleatasuna sendatzea midikuaren lana bakarrik balitz bezala jokatzeko dute. Baina sendategitik irten eta gero, nola eskain dezaiokegu gazte horri gure bizimodu zoriontsu hau, hain zuzen hortik ihes egiteagatik, horren higuinagatik drogatu da-ta?

## JARRAIPIDE BAT: "DENAREN KONTRA"

"Contre-tout" (Denaren kontra) du izena A. Girardin, apez ortodoxoak, Frantziara, sortu duen komunitateak. Sendatzea nahi duten drogazaleak biltzen dira hor. Taldeak oso lege gutxi du, ia batere ez. Bizimodu honek zera nahi du, alegia, bizitzaren bidez, bizitzeko arazoak bilatu eta drogatzekoak desegin.

Espereintzia hau oso ona da. Baina gure gizarte honetan, oso artifiziala eta baztertua gelditzen da. Itsasoa ur-tanta bat dirudi.

Joan Mari Torrealdy

## EGIAZKO KREDITO TXARTELA



Eurocardekin, Espainiako edozein lekutan paga zenezake. Milaka etxetako atek irekirik izango dituzu. Mundu osoan, milioiren bat etxe. Negozio bazkari bat egiten ari zeralarik, pasa dizaiuzketen notaz axola gutxi. Eurocardek pagatuko du. Erosketak egitera joango zereanean, zernahi gauza eros zenezake txartel honekin. Gauza tiktarako dirua berri, Bizkaiko Bankoaren edozein ofiziantan lortuko duzu. Honen antzeko txartel asko gordetzeko eginik ote diran, badirudi. Eurocard, erabiltzeko eta etekina ateratzeko egin da. Balia zaitoz txartel honetaz. Eurocardekin batera, firma bat aski duzu.

Bizkaiko Bankoak zabalitzen ditu txartelak.